

BERRIGARA


zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, abenduak 15

5 urte bete
ditugu

Zorionak!!

IMANOL LABAKA, BERRIGARA
LEHEN ALDIZ ARGITARATU ZEN
EGUN BEREAN, 1990EKO
ABENDUAREN 14EAN JAIO ZEN
BERGARAN. ZORIONAK!!

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.



AGERIKO OPARIAK

Oraín, **kutxan** aurrezten baduzu, opari bat jasoko duzu. Edo bat baino gehiago.

Zatoz eta informa zaitez gure bulego guztietan irakur itzazu eskura dauzkazun liburuskak.

Eta, zer esanik ez, opariak agerian daude.

150.000 pta.ko ezarpena

"PIREX" azpila, labe eta mikrouhinerako, edo sukalde eta mahaiko "CUYFOR" 12 labanen jokoa.

350.000 pta.ko ezarpena

"CASIO" Walkman/Irratia AM/FM stereoak, edo Eguberritako Arbola, 1,50 m. apaingarri eta guzti. (Izakinak agortu arte. Argirik ez dauka)

500.000 pta.ko ezarpena

"ROLSER" eskailera/aulkitxo tolesgarriduna eta 12 funtziotako "JOHNLITE" linterna, edo "SOLAC" kafetera, 161 modelo.

Sustapen honek P.F.E.Z.aren arauak jarraitzen ditu.

**ALERTA MAXIMA 2**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen
eguna).**CASPER**

Igandea: 11.30.

**OTELO (J.B.)**

Osteguna: 20.00.

Zinea▼▼ **Steven Seagal**

aktoreak protagonizatutako filmea. Hemen ere heroiaren papera egingo du. *Travis Danek (Eric Bogosian)* Estatu Batuetako trenik ospetsuena bahitu du. Bertatik, eta puntako teknologiaz baliaturik, Washingtongo hiria edota Pentagonoa hautsi nahi ditu mila milioi dolar ematen ez badiote. Baina *Casey Riback (Steven Seagal)* treneko sukaldariarekin topo egingo du...

▼▼ Nork esaten zuen manuak existitzen ez zirenik? **Steven Spielberg**ekoiztutako filme honetan, argi eta garbi azaltzen dira eta, filmearen arrakasta ikusirik, harrera ona izan dute gizakion artean. **Christina Ricci**, **Bill Pullman** eta **Cathy Moriarty** aktoreak erreperto buruan.

▼▼ Teknika modernoenei esker, **Orson Wellesek** 1952an egindako filmea berreskuratu ahal izan da. Orduan, besteak beste, Urrezko Palma irabazi zuen Canneseko Zine Jaialdian. **William Shakespeare** idazlearen lanean oinarrituta, *Otelo (Welles)* eta *Desdémonaren (Suzanne Cloutier)* arteko amodioa azaltzen zaigu. Jatorrizko bertsioan.

Deiak

▼ **1967**an jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen bazkaria abenduaren 23an. Izen-ematea abenduaren 19a baino lehen 76 14 06 (Mikel), 76 02 99 (Ainhoa) eta 76 26 17 (Jose Luis) telefonoetan.

▼ **Forum Cinematographe** taldearen bilera asteartean, hilak 19, 20.30etan Kultur Etxean. Herriko zinezale guztiei bertara joateko deia egiten zaie.

▼ **Bideoa.** Jardunek antolatuta, "*Asterix eta Cesaren ustekabea*" bideoa bihar, hilak 16, goizeko 11etan Kultur Etxean.

▼ **Eluska Zabalo Monje**ren pintura erakusketa Naikari tabernan ikusgai abenduan zehar.

Ogia▼ **Igandea 17:** Mizpildi.**FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 15:** Camacho.
- ▼ **Larunbata 16:** Puy/Irizar.
- ▼ **Igandea 17:** Puy/Amezua.
- ▼ **Astelehena 18:** Guallar/Ruiz.
- ▼ **Asteartea 19:** Estella/Morales.
- ▼ **Asteazkena 20:** Mozos/Azko.
- ▼ **Osteguna 21:** Camacho/Espa.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Zorionak Xamatz

Dantza-taldearen 10. urteurrena ospatzeko jaialdia

Xamatz dantza-taldearen X. urteurrena ospatzeko jaialdia izango da bihar larunbata gaueko 10.30etan Udal Pelotalekuan. 1984/85 urtean sortu zen Xamatz, Gazte Alai dantza-taldeak utzitako hutsunea betetzeko asmoz. Hasiara hartan dantza zaharrak eta berriak ikasten neska talde bat aritu zen, ekitaldirik eman gabe, taldea mutilez osatu zen arte. Hortik aurrera Bergarako auzo eta jaietan saioak eskeintzeari ekin zioten eta taldea indarra hartzen hasi zen.

Dagoeneko 10 urte pasa dira eta 120 bat lagun pasa dira Xamatz dantza-taldetik. Gaur egun 19 urtetik 24 urtera bitarteko 13 neska eta 14 mutilez osaturik dago taldea eta, horrez gain, 16 musiko ari dira Xamatze-koekin batera. Biharko jaialdia orain urte t'erdi hasi ziren prestatzen baina, Frontoiarene berrikuntza lanengatik, antolakuntza atzeratu eta irailean ekin



Xamatze-koek Berriotxoa dantza eskeiniko dute larunbateko jaialdian.

zioten berriro. Xamatze-ko partaide izan direnen laguntza izan dute eta taula gainean 80 bat lagun izango dira bihar. Ibon Unamuno taldeko ordezkariak adierazten duenez, "lehenengo askok ez zeukaten dantza egiteko asmorik eta jendea animatzeaz gain, egin behar diren dantzak lehengoei era-

kustea nabiko gogorra izan da, gebienek abaztuta zeuzkaten eta. Jaialdiaren hasiera eta bukatuera guztiok batera egingo dugu".

Esan bezala, dantzari-ekin batera, hainbat musikok hartuko dute parte, besteak beste, txistulari, klarinete, bonbo, txapa, flauta, tanbor eta Kobok dultzainero taldeak. Xamatzek ondoko programa prestatu du: Txalaparta, Ikurrin dantza, Agurra (dantzari guztiek batera egingo dutena), Uztai

dantza, Zinta dantza, Banako eta Txakarranko (nagusiek egingo dutena), El Arbol eta La Jota, Bal-karlos, trikitalariak, fandango eta arin-arina (neska nagusien eskutik) Sorgin dantza, Igitoi dantza, Berriotxoa, Txalaparta eta Larrain dantza.

Aipatutakoen artean Sorgin dantza eta Berriotxoa Bergarakoak dira. Sorgin dantzari dagokionez, Bergarako testileko langileek Oriara eramaten zuten. Gizonezkoen dantza izan arren, erdiak andra jantzita azaltzen dira. Karnabaletako dantzatzat jo daiteke, gizon eta emakumeen arteko besarkada, zirriak edota gona jasotzeak adierazteko. Berriotxoa, berriz, Gazte Alai taldeak orain 31 urte sortutako dantza da. Balentin Berriotxoa Bizkaiko santuaren bizitza erakusten da bertan. Dantzari-ekin Sortaldeko jendea errepresentatzen dute eta Berriotxoa, berriz, dominiko jantzirik azaltzen da. Dantza honek 1967ko Dantza Berrien lehiaketan 2. saria lortu zuen.

Sarrerak 500 pezetan jarriko dira salgai eta haurrentzat 200 pezetako sarrerak izango dira.

Dantzaz gain, musikak ere izango du bere tokia zapatu gaueko ikuskizunean



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Eroskik zure eskubideak defenditzen ditu

Tradizionalki Eroskik kontsumitzaileen eskubideen babesle sutsutzat agertu izan du bere burua. Bezeroa ondo atenditzea, kalitatearen eta prezioaren artean inon baino erlazio hobea izatea, inaugurazioraz arduratzea... horiek omen dira Eroskiren kezkarik nagusienak. Hala agertzen da behintzat, etengabe, bere mezuetan.

Baina kontsumitzaileekiko zintzotasun horren inguruan eraikitako gaztelu haundi hori bertan behera erortzen da, norbait Eroskiko supermerkatu batera, Bergarakoan adibidez, erosketak egitera joaten denean.

Orduan, bezeroak ondo hartu, portaera diskreto eta atsegina izan eta arazoak eskandalorik gabe soluzionatu ordez, hurbiltzen zaien edozein pertsona (kasu honetan, etxe-koandre bat) akusatu, umilatu eta lotsagarri uzteko gai dira. Eta guzti hori, zergatik? Ba, dendako sailen bateko langile begiluze batek emakumeren bat bere zorroan zerbait sartzen (ordaindu gabe eramateko asmotan edo) ikusi duelako.

Hala, bada, langile listo-usteko horrek esan dio kuxako emakumeari bezeroak pakete bat hartu duela, eta hor agertu da arduradun edo zuzendari edo dena delako pertsonaia hori (bide batez esanda, kooperatibaren zuzendaritzak merezi duen tokian jartzea espero dudana) poltsa irekitzeko esanaz. Bezeroa kasu honetan ni naiz.

Gutziz irainduta sentitu arren, ireki diet poltsa eta ikusi dute han ez dudala ezer. Baina ez dira nonbait lasai geratu eta hankasar-

tze bat izan dela onartu eta barkamena eskatu ordez, hor non esan didaten hartu dudana ateratzeko neukan lekutik.

Handik komisaldegira, epaitegira edo kamendira eramango ote ninduten pentsatzen hasia nintzenean, lapurreta ikusi zuen langileari dei egin eta, denok harri eta zur utziz hor esaten duen: "hau ez da paketea hartu duen emakumea". Nire kontrako kargu guztiak desagertuak ziren eta, edozein herritar bezala, askatasunez ibil nintekeen.

Orduan, minutu gehiegitxo akusaziopean pasatu eta inolako errespatorik gabe tratatu ondoren, han bildutako ganorabako koadrilari berba bueltatu eta hor hasi zitzaizkidan mila barkamen eta mila prozesio eskatuaz. Ni, berriz, han egundoko tonta aurpegiaz, neuk egin ez nuen gauza batetaz akusatuta, egin omen zuenak alde egin zuen bitartean.

Beraz, kontuz ibili, batzuetan, supermerkatu batera sartzean, bezeroa, errespetu eta begirune haundienaz tratatu beharreko pertsona izan ordez, ondo zaindu beharreko gizaki susmagarria bihurtzen da eta.

A.E. (NAN: 15.284.338)

Gabonetako argiak

Gabonetako argiak, denek gustoko ditugu. Alaitasuna, kaleak oso politak uzten ditu... Orain dela pare bat urte oso politak zauden Bergarako hainbat kale, baina joan zen urtean hutsopil edo dezepzio haundia hartu genuen Bergarako kaleak oso triste eta ilun ikusten zirelako.

Hau dena, diru asko kostatu zelako pasaz, baina ikusi dudanez, adibidez, Miguel Altuna institutu berriko argiak egunero eta gau osoz, piztuta egoten dira, bertan dirua alperrik gastatuz, ez baita inor egoten.

Nire aholkua, argiak lehenago itzaltzea eta bertan gastatzen den dirua aprobetxatuz, Gabonetako argietan gastatzea da, kaleei alaitasun gehiago emanaz.

Z.M.U. (NAN: 15.400.192)

Kotxe gidariei eskutitza

Kaixo kotxe gidari guztiak. Gu Boluko neska-mutilak gara. Burdiñateko Konde Paderokuaeren parean dagoen zebraidean egunero itxoiten egoten gara, 2 minutu, 3 minutu, 4 minutu..., eta kotxeak pasa eta pasa, ez da inor gelditzen zebraidean gu pasatzeko.

Kotxeek, lantegira joateko prisa dute, baina guk ere prisa dugu ikastolara joateko. Mesedez, eskatuko genieke kotxe gidari guztiei zebraidea errespetatzea.

BOLUKO NESKA MUTILEN IZENEAN, JANIRE URBIETA, ARIANE ARRUTI, LIERNI ERRASTI

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

◆ **Janaria kiloka**

Ruandara

Santa Marinako Parrokiak "kilo operazioa" antolatu du. Interesatuek kilo bat oinarritzko janari (azukrea, garbantzuak, lentejak, arroza... etab.) bidali dezakete Santa Marinara. Batutakoa Ruandara bidaliko da.

◆ **Gaztetxoentzat**

ekitaldiak

Jardun Elkartek 12 urtetik 14 urtera bitarteko gaztetxoentzat ekitaldiak antolatuko ditu abenduaren 26tik 30era Kartzela Zaharrean. Ekitaldiok arratsalde izango dira eta bertan parte hartzeko interesa dutenek izena eman beharko dute Jardun Elkartean (Masterreka 13) abenduaren 20a baino lehen. Argibideak 76 08 19 telefonoan.

Ruandaren aldeko espedizioan batutako 5 milioiak Kabugara

Asteazken eguerdian Victoriano Gallastegi alkateak iaz Ruandaren alde eginiko txakur leren espedizioan batutako dirua entregatu zion Ruandan 20 urtetan misiolari egon den Ramon Amunarrizi.

Kigali hiriburutik 20 bat kilometrora dagoen Kabuga eskualdean egin den zentro kulturala ordaindu ahal izateko 5.322.808 pezetako txekea jaso zuen Amunarrizek. Aipatutako zentroak 900 m2ko azalera dauka eta Enrique Ibáñez arkitekto arabarraren proiektuaren arabera 3 edifizio izango ditu: 500 m2ko areto nagusi bat erdian eta alboetan liburutegi bat eta ekitaldi ezberdinetarako beste areto bat.

Jasotzen den dirua beti heltzen da

Amunarrizek ruandarrak zentrua eraikitzeko eskeinitako laguntza azpimarratu zuen. Bere hitzetan, "bertako gazteriarri itxaropena ematen jarraitu behar dugu. Zentzu honetan, eskertzekoa da Euskal Herritik heldutako laguntza. Jendeak laguntza hori beti heltzen dela jakin beharra dauka, askotan konfi-



Kabugan zentro kulturala eraiki zeneko irudi bat.

dantza falta izaten baita laguntza ematerako orduan. Oraindik ere lan asko egin beharra dago eta horretarako profesionalen beharra daukagu. ONG balioaniztun batzuk sortzea komenigarria litzateke, beharrezkoak diren profesionalak bilduz".

Ruandan egoera politikoa kolokan

Amunarrizek Ruandatik alde egin behar izan zuen orain bi urte agintari afrikarrekin izandako arazoengatik. Asteazkenean azaldu zuenez, "bertako egoera oraindik kolokan dago eta horre-

tarako berrialde ezberdinek beren laguntza heldu ahal izateko zubiak jarri behar dituzte". Amunarrizek berak eramanango du jasotako laguntza Ruandara. Orain, Afrikara bueltatu ahal izateko egin beharreko jesticioak egiten ari da.

txakur leren espedizioan parte hartu zuten 46 udaletan Kabugako zentro kulturalaren proiektua erakutsiko da. Asteazkeneko ekitaldian, alkateaz gain, besteak beste, Behar Bidasoa ONG taldeko kideak eta txakur leren espedizioan parte hartu zuten Patxi Maestro eta Axen Garitano bergararra izan ziren.

HILDAKOAK

Emerenciano San José

Abenduak 3, 50 urte

Felisa Zabaleta Urzelai

Abenduak 3, 71 urte

JAIOTAKOAK

Ane Motos Elizburu

Azaroak 26

Andoni Cuesta Sotos

Azaroak 28

Garazi Zabaleta Mendikute

Azaroak 30

Iñigo Martínez Castro

Abenduak 7

AGIRREBEÑA

**oinetakoak
arropa denda
lenzeria**

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

◆ Musika Eskolako kontzertuak

Datorren asterako Musika Eskolako ikasleen hainbat emanaldi iragarri dira. Asteartean, hilak 19, akordeoi kontzertua izango da 7etan Zabalotegiko aretoan, asteazkenean ordu eta toki berean pianoko ikasleena eta, ostiralean, hilak 22, lenguaia musikaleko ikasleek gabon kantak eskeiniko dituzte arratsaldeko 7etan Mariaren Lagundiko aretoan.

◆ Gabonetako kontzerturako sarrerak


Abenduaren 23ko Gabonetako kontzerturako sarrerak Kultur Etxean, Musika Eskolan eta Lazkano oinetako dendan jarri dira salgai, 800 pezetatan nagusientzat eta 200 pezetatan ikasle eta langabetuentzat.

◆ Monzonen liburuaren aurkezpena

"Langosta baten inguruan" Telesforo Monzonen liburuaren aurkezpena egingo da asteartean 19.30etan Olaso Dorrean. Bertan, Maria Josefa Ganuza Monzonen alarguna, Koldo Izagirre eta Juan Martin Elexpuru idazleak eta Xabier Mendiguren Elkarreko ordezkaria izango dira.

◆ Mendi irteera

Pol-Polek abenduaren 31n Aitzgorrira gazteentzako mendi irteera iragarri du. Irteera goizeko 8etan autobus geltokitik egingo da. Izen-ematea (200 pezeta bazkideentzat eta 400 gainontzekoentzat) asteleheneetik ostegunera 7etatik 8 terdietara Pol-Polen egin daiteke.



Zerrajerako terrenu zaharretan Industrialdeak 15.000 m²ko azalera izango du.

Abenduaren 28an sinatuko da Industrialdearen hitzarmena

Udalak %24,5eko ordezkari-tza izango du


Abenduaren 28an sinatuko da Bergarako Industrialdea elkarte eratzeko hitzarmena. Aipatutako elkarteak 10 milioi pezetako kapitala izango du eta SPRI erakundeak (%51arekin), Gipuzkoako Diputazioak (%24,5arekin) eta Bergarako Udalak (%24,5a) osatuko dute. Udalak 2.450.000 pezeta jarriko ditu. Zerrajerako terrenu zaharretan kokatuta, Industrialdeak 15.000 m²ko azalera izango du. Era berean, jabego pribatukoak izango diren beste 24.000 m² daude Labe-garaietan.

Inbertsioei dagokienez, datorren urtean 200 milioi inbertituko dira Bergarako Industrialdean eta 97an, berriz, 340 milioi izango direla espero da. Industrialdearekin, zoru

industrialaren beharrei aurre egi-teaz gain, urtetan erabili gabe egon diren Zerrajerako terrenuak urbanistikoki berreskuratu ahal izango dira.

Bestalde, joan den abenduaren 4ko Plenoan, tripartittoa osatzen duten alderdiek Victoriano Gallas-tegi alkatea eta Juan Mari Garitano EAko zinegotzia izendatu zituzten Bergarako Industrialdeako Administrazio Kontseiluan Udalaren ordezkari izateko. HBko ordezkariak kontra azaldu ziren, tripartittoa beste alderdien partizipazioa oztopatzen duela argudiatuz.

Herriko enpresen beharrak aztertu eta industriak erakartzeko tekniko bat izendatuko du Udalak datozen egunetan.



Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34


ZABALETA ERROTULOAK

Mofa guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE



Aurreko edizioan Iragirik irabazi zuen Eskaparate lehiaketa. ARTXIBOA

Herriko 20 denda Udaleko Eskaparate lehiaketan

Irabazleak datorren ostiralean ezagutuko dira

Igandera arte ikusgai izango dira Udalak antolatutako Eskaparate lehiaketaren bostgarren edizioan parte hartu duten 20 komertzio-tako eskaparateak. Epaimahaiak, berriz, datorren ostiralean, abenduak 22, emango du jakitera erabakia. Irabazleak 60.000 pezeta eta Udalaren plaka eskuratuko ditu, bigarrenak 30.000 pezeta eta, azkenik, hirugarrenak 15.000 pezetako saria eramango du. Aurten azken urteotako partaidetza kopurua mantendu egin da, iaz ere 20 partaide izan baitziren. 1993an, berriz, 24 komertzio hartu zuten parte eskaparate lehiaketan.

Partaideek eskaparateak igandera arte bakarrik ikusgai izatea aginduta daukate baina baliteke saritu-

takoak beste zenbait egunez daudenetan mantentzea, herritarrek ikus ditzaten.

Bestalde, Udaleko Eskaparate lehiaketarekin loturik, Bedelkar herriko dendarien elkarteak 4.500 inkesta buzoneatu ditu, herritarrek bozketa popularraren bidez Udaleko lehiaketan parte hartzen dutenen artean eskaparaterik politena aukera dezaten. Bedelkarrek jasotako emaitza Udaleko epaimahaiari jakinaraziko dio.

Era berean, Bedelkarrek antolatutako inkestan parte hartzen duten guztien artean 10.000 pezetako erosketa bono bat zozketatuko da. Erantzunak bihar larunbatera arte (hilak 16) utzi ahal izango dira Bedelkarreko dendetan.

◆ EAJren oharra

Igandean, abenduak 17, Gernikan ospatuko den ekitaldira joateko autobusa antolatu du Bergarako EAJk. Irteera goizeko 9etan Beheko Estaziotik eta itzulera ekitaldia bukatu eta gero, Izenematea Batzokian.

◆ Idolazen sukaldaritza ikastaroa

Idolaz Antzuolako euskara elkarteak antolatuta, astelehenean eta asteartean sukaldaritza ikastaroa emango dute Jesus Mari Legorburuk eta Juanita Zabalok, 18.30etan Danok Bat elkartearen.

◆ Presoen aldeko akanpada

Begarako Amnistiaren Aldeko Komiteak deituta, presoak euskal herriratzearen aldeko akanpada egingo da larunbatean eta igandean Plazan. Amaiera modura, igandean Setan manifestazioa izango da eta akanpadak irauten duen bitartean hainbat ekitaldi izango dira. Akanpadan parte hartzen dutenek baraualdia egingo dute.

◆ Nikaraguarako betaurrekoak

Begarako ikastetxeek Nikaraguarako betaurrekoak biltzeari ekin diote. Interesatuak herriko optiketara edota eskoletara bidal ditzakete betaurrekoak.

◆ Ekitaldiak Antzuolan

Bihar larunbata jaialdia izango da 6etan Antzuolako zine aretoan. Bertan kantariak, bertsolariak, dantzariak, etab. izango dira.

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Bergarar ugari ari da komunikabideetan kazetari lanean. Irratian, telebistan nahiz prentsan dabilzan lagunen esperientzia eta Berrigarara astekariaz duten iritzia jasotzeko nahi izan ditugu aste honetan, Berrigararen bosgarren urteurrena ospatzen dugun honetan.

Bergararrak komunikabideetan


Mikel Lizarralde

(25 urte)
Euskaldunon Egunkaria

Uniberriak, EHUko aldirikariari hasi zen lehen leerroak idazten. Harez gero Euskaldunon Egunkarian idatzi ditu pasarterik luzeenak.

Asteartean kalera ateratzen den Euskalduntzeari buruzko Ari naizela gehigarrian dihardu orain. Euskaldunon Egunkaria berritzea eta aldatzea komenigarria eta beharrezkoa zen Mikelen ustez: "zenbait gauza zabartuta zeuden, gehiagarrak eta, gaur egun atera beharrekoak dira". Hala ere, bere ustez jende asko oraindik ez da konturatzen Egunkaria euskaren normalizazioaren alde egiten ari den lanaz. "Jendea euskalduna eta abertzalea da, baina egunkari erdaldunak erosten ditu, kontraesana da".

Zein albiste emateak poztuko lukeen pentsa-



tzen hasita bata bestearen segidan esaten dituzte: "bakea lortu dela eta euskarak bere tokia izatea, euskarak erasorik ez jasotzea". Anekdoten artean gertatu zaion azkena kontatu digu: "Euskalerriko Sanbo selekzioari buruzko erreportaia bat egin nuen. Sumarioan, ordea, sanbo jarri beharrean sumo azaldu zen. Komikilariak horri buruzko komikia egin, eta Perurena eta Saralegi marraztu zituen".

Herri komunikabideak betetzen ari diren papera oso garrantzitsua dela uste du. "Euskal prentsa, Egunkaria, esaterako, ez da iristen herriko albisteak ematera eta herri aldirikariek hutsune hori betetzen dute". Mikelek BERRIGARAN gustora irakurriko luke erreportaia bat baino gehiago. "Ez dakit Bergarak erreportaia bat baino gehiagotarako emango lukeen, baina gehiago egotea gustatuko litzaidake. Kultura alde-

tik egon diren ekitaldiei buruzko jarraipena eta kritikak ere sartuko nituzke".

Nora Askargorta

(25): Euskal Telebista

Telebistan hasi zen, irratia ezagutzeko aukera izan du eta orain berriz ere telebistan dabil. "Telebistan informatiboetan

"Kazetari langabetuaren irtenbideetariko bat komunikabide proiektuak aurkeztea izan daiteke"



basi nintzen baina nahiago dut programetan lan egitea; gainera, esan daiteke beti programetan ibili naizela". Gaur egun Iparra kultura saioko zuzendari eta aurkezle da. "Beste lagun batek eta biok egiten dugu zuzendari lana. Lanik gabe geunden eta ETBn kultura sario bat egiteko proiektua aurkeztu genuen; esperantza gutxi genuen, gazteegiak ginela esaten zigutelako baina zortea izan dugu. Eta egia esateko, zuzentzea uste baino errazagoa da, oso talde ona dugulako".

Noraren ustez egun kazetaritza lan asko ez dagoenez komunikabideetan proiektuak aurkeztea kazetari langabetuak izan dezakeen irtenbideetako bat da: "Askotan pentsatu izan dut lanean zorte handia izan dudala, baina saiatu ere egin naiz. Proiektuak aurkeztea, probatzea... ezinbestekoa da". Aurkezpen lanak euskeraz eta gazteleraz egiten ditu: "barrituta geratu naiz kamara aurrean euskeraz hobeto moldatzen naizela ikustean, txikitatik gaztelerarako

joera handiagoa izan dudalako"

Nora ez da audientzia datuen beldur: "kultura saio bati, tamalez, ez zaito eskatzen audientziarik; ezinbestekoak dira telebistan. Gainera oso berandu ematen dira eta ezin da ezer eskatu".

BERRIGARAN inoiz irakurtzen ez duena kirolak da, ez baita kirolzalea; gainontzeko kazetariekin bat dator gehien gustatzen zaion atalean: "erreturatu zabarra".

German Larrañaga

(27 urte)
La Voz de la Rioja 16

Madrilen Marcan hasi zen praktikak egiten, Europa Press telebista agentzian ibilia da, baita Ariz-Ondo aldizkarian eta Zarauzko telebistan ere. Iazko otsailetik Logroñoko La Voz de la Riojan -Diario 16en edizio bat-dabil. Hasieran maketatzaile eta grafikoak egiten hasi zen, baina orain kirol sailean erredaktore dabil. "Zer-


baitetan zentratzea gustatuko litzaidake, maketazio eta grafikogintza, esaterako; lan honetan todoterrenoa izan behar da. Bestalde, kazetaritza munduan nik garbi dut: lana dagoen tokira joan behar da, maletak beti prest eduki behar dira".

Logroñotik Euskal Herria beste era batera ikusten dela uste du: "hemen

giroa nabastuta ikusten dut, albiste guztiak ezkorrrak eta penagarriak dira eta berez garrantzitsuenak diren albisteak ez dira sakontzen eta garrantzen".

Medio guztiak probatuta dituen kazetariak gustokoen telebista du. "Hala ere, garrantzitsuen gaia menperatzea da, gaia menperatuz gero, edozein mediotan ondo moldatuko zara". Germanen ustez gaur egun komunikabide gehiago egon arren, jendea ez dago informatuago. "Jendeak ez daki kritiko izaten. Kazetariak, bere aldetik, nabiz eta ezinezkoa izan, objetibo izaten abalegindu behar du".

Germanek BERRIGARAN gustoren "Iturri onetik" irakurtzen du. "BERRIGARA berriaren lekuko bat izateaz gain, herriko-ekintzak suspertzeko motorra da. Nire ustez, herrian eragin handia eta berriarekin lotura handia du".



"Kazetariak lana dagoen tokira joan behar du; maletak beti prest eduki behar ditu"

Marta Moral**(27 urte). Radio Diario**

7 urte darama Martak irratigintzan. Radio Diarion dabil, "Komunikabide lokaletan espezializazioa utopia hutsa denez, azken bolada honetan denetarik egiten dut". Irratiaren berehalakotasunak harrapatuta du Marta. "Espontaneitatea atsegin dut eta hori irratian bakarrik da posible. Irratiak ematen duen intimitatea ere gustoko dut".

Entzule gisa informazio saioak eta mahainguruak ditu gustokoen; lanerako, berriz, "denetarik izango lukeen gaueko irratsaio bat gustora egingo nuke". Berriz jaioko balitz beharbada lan lasaiagoa eta batez ere hobeto ordainduta dagoena aukeratuko lukeelakoan dago Marta. Dena den, kazetari izan nahi dutenez badu aholkurik: "ez galdu itzaropena eta lanik ez duzun bitartean beste alternatiba

bat bilatu. Beste aukera bat, entxufe on bat bilatzea da".

Gehien txunditu duen pertsonaia Carlos Mejia Godoy izan da. "Albert Plarekin egindako elkarriketa ere gogoko dut edota Gabino Diegorekin izandakoa. Honekin pote batzuk hartzeko aukera ere izan nuen. Anekdota asko ditut: behin, Donostiako zinemaldian lankide batek Juan Diego ekarri zidan elkarriketatzeko; ez nintzen bere izenaz akordatzen. Zein zen konturatu arte galdera neutroak baino ez nizkion egin. Gaizki pasa nuen, hala ere bera ez zen konturatu".

BERRIGARA gustora irakurri arren, Bergaran egiten diren benetako gauzei buruzko informazioa falta dela uste du: "industria arloan, esate-

rako; udal mailan ere kritika falta da"



Jon Altuna**(28 urte). Egin**

87an EGINen Bergarako berriemate hasi zen eta orain Hernaniko erredakzioan dabil. "Nazioartea eta estatua sailetan aritu, eta otsailaz geroztik diseinu lanetan dibardut. Niretzat mundu berria da eta asko ari naiz ikasten. Idazten abaztu egin zaidala esan dezaket. Beharbada orain egiten ari naizena ez da kazetari lana, baina, nire ustez, iritsiko da kazetariak bere produktu guztia kontrolatu eta, idazteaz gain, diseinatu ere egin beharko duen eguna".

Irratian ere ibilia da: "Euskadi Irratian bekadun

egon eta gero Eibarren partiduak ematen nituen. Irratian gustora egingo nuke lan; gaueko programa batean esaterako. Telebistan lan egitea, berriz, ez litzaidake gustatuko: kalean jendeak ezagutzeko gero, ezin zara lasai ibili". Euskeraz egiten ditu ikasketak eta euskeraz bizi da Jon, hori dela eta euskeraz beti ibili izan da gustorago: "gaztelaraz idazten ikasi egin behar izan dut" eta erabat euskalduna den medio batean lan egitea gustatuko litzaioke. Kazetaritzak jende dexente ezagutzeko aukera eman dio. Atxagari eta Anton Reixari egindako elkarrizketak ditu gogoan.

BERRIGARA gustora irakurtzen du, baina batzuetan, "zenbait gai tratatzerakoan batzuetan objetibotasun falta egon dela iruditzen zait, behar bezala ez dira tratatu. Diseinuari dagokionez, kontzentratuegi ikusten dut, argazki txikiak... beharbada espazio faltagatik".



Iñigo Urrutia

(31 urte). Deia

11 urte daramatza kazetari: Logos agentzian eta YAn lan egina, Herri Irratiko kirol berriemate, azken 10 urteotan DEIAN dabil; kultura sailean lan egitea gustatuko litzaiokeen arren, politika eta Foru Aldundiko informazioaz arduratzen da.

Prentsan ez ezik, irratian ere aritzen da Iñigo, Herri Irratiko Goiz Hiruko tertulian parte hartzen baitu. *"Medio bezala nahiago dut prentsa, baina ez diot uko egiten irratari, Iñaki de Mujika eta Josean Alkortarekin aritu nintzeneko oso oroitzapen politikak ditudalako"*. Goizetako tertuliar buruz konprometitua bezain erakargarria dela dio. *"Askotan oso gogorra izaten da. Gebienetan gai latzak izaten dira aztergai*

politikari garrantzi gehiegi ematen zaio. *"Herri honek bukaezinezko gatazka bizi du eta medioek egoera hori aspertu arte isladatzen dute"*.

Iñigoren iritziz, herri prentsa indartzea derrigorrezkoa da, etxetik urrun samar bizi direnentzat oso informazio iturri egokia delako. *"Akaso inprimaketa hobetu beharra du eta Euskadi mailan antolatzen diren kultur ekintzen agenda ere bai. Soberan ez dut uste ezer duenik. Aldizkari duina da"*.

Martin Garitano

(32 urte). Egin

84an Herri Irratian eman zituen lehen urratsak baina berehala hasi



"Berrigarak herriko informazioa zer den eta zer izan behar duen ondo isladatzen du"

turan... pelota partiduez eta zezenketaz ere idatzi izan dut!"

Euskadi Irratian eta Radio Euskadiko tertulietan ere parte hartzen du: *"Iritziak emateko askatasun osoa ematen dizu. Zuzenean egiteak tentsio gehiago sortzen badu ere, lanak ez du prentsak eskatzen duen gogoeta sakoñik exijitzen"*.

Martini honako albiste hau ematea gustatuko litzaioke: *"Negoziazio zintzo eta sakon baten ondorioz espainiar estatuak euskaldunon eskubide demokratikoak onartzen dituztenez gero, pakea dugula Euskal Herrian"*.

Anekdotari ugariren artean bat nabarmendu digu: *"Lagun batek J. M. Bandresi Valentziako aldizkari baterako elkarrizketa bat eskatu zion. Lehenengo galderari erantzun aurretik Bandresek elkarrizketa euskaraz egiteko nahia zuela adierazi zion, baina aldizkaria Valentziakoa zenez, gazteleraz egin beharra ulertzen zuela. Nire lagunak euskara do-*


torean egiteko inolako eragozpenik ez zegoela erantzun eta Bandresek euskeraz ez zekiela aitor-tu behar izan zion"

BERRIGARAZ hauxe dio: *"oso gustoko dut gaur egun egiten den Berrigara, herriko informazioa zer den eta zer izan behar duen ongi isladatzen duelako. Kritikaren bat egitekotan argazkiak oso txikiak direla. Bergarako historiari buruzko eta herriko etxeoandren sukaldeko errezeta zahar-zabarrak bilduko lituzkeen atalak botatzen ditut faltan"*.

Ane Miren Lizarralde

(34). Euskal Telebista

El Correok Eibarren duen delegazioan 6 urte egin eta telebistara joan zen; 7 urte daramatza ETBn. Gustokoen duen lanean ari da, albistegietan: *"Nabiz eta beti gauza berean ibili, egunero da desberdina"*.



"Herriatik urrun bizi garenontzat oso informazio iturri egokia da Berrigara"

eta idazteak eskaintzen dituen erreflexiorako aukerarik ez duzu".

Iñigoren ustez, beste zenbait arlo baztertu eta

zen EGINen. Orain Bizkaiko EGINeko delegatu eta erredakzio buru da. *"Sail askotan lan egin izan dut: Gizartean, Kul-*




"Aurkezle bati gero eta gehiago eskatzen zaio, ez da bere buruaz bakarrik arduratzen"

Orain, Gaur Egun eta Teleberrirako bateragile lanetan ari da. Aldi berean euskaraz eta gaztelerez lan egiteak lana bikoiztu egiten duela dio. Ane Mirenentzat kamara aurrean lan egitea ez da batere erraza: *"Aurkezle bati gero eta gehiago eskatzen zaio, ez da bere buruaz bakarrik arduratzen. Nik nahiago dut atzean lan egitea"*.

BERRIGARA Bergarara etortzen denean irakurtzeko ohitura du. *"Herrian gertatzen dena ondo jasotzen duela uste dut. Nire ustez ematen den informazioa herritar gehienek eskatzen duena da. Erreportaiak nabarmen-*

duko nituzke. Astero-astero herri mailan erreportaia egiteko gai interesgarriak ateratzea ez da erraza eta zainduta dago".

Ane Mirenek oraindik buruan du 15 minutu iraun behar zuen informatibo hura: *"Denetarik gertatu zen. Magnetoskopioa bondatu, bideo erdiak aurkeztu arren ez ziren emititu, Aita Santuari buruzko informazioa aurkeztu eta delfinak igerian... bamaika aldiz barkamena eskatu ondoren 7 minutu airean egin eta agurtu egin behar izan genuen. Zorionez, orain horrelakoak gertatzea ezinezkoa da"*.



"Herri komunikabideei esker, informazio lokala ematen dugun kazetarien lana aintzat hartu da"

Juan Antonio Migura

(34). El Diario Vasco

86an DEIAN esperientzia labur bat izan, TVEn beste hilabete batzuk egin eta El Diario Vascon Bergarako informazioa ematen hasi zen. *"Nazioartean lan egitea gustatuko litzaidake, distantziaren perspektiba dagoenean errazagoa delako idaztea: ez dago inolako inplikaziorik. Informazio lokalean guztiz alderantzizkoa gertatzen da"*.

Juananek informazio lokalaren arloan bila-kaera somatu du: *"Tratamenduari dagokionez, lehen DVn, esaterako, betegarri bezala zegoen; gehien irakurtzen zena zela konturatzean tratamendua hobetu eta gehiago errespetatzen da"*.

Herri komunikabideen aldekoa da: *"Euskararen eta informazioaren aldetik sortzeko beharra zegoen; horretaz gain herri informazioko kazetaria gutxietsita zegoen eta herri komunikabideei esker, herriko kazetariari duintasuna eman zaio"*.

Juan Luis Bikuña

(49). Euskal Telebista

18-19 urterekin hasi zen kazetari lanetan. La

Voz de España, EFE agentzian, Deian, Correion eta SERen lan egin du. Azken 11 urteotan ETBn dihardu. Une honetan informatibo eta kiroletako zuzendariorde da eta Asi las cosas izeneko saioa ere egiten du. Bere ustez komunikatzaile batek sekula ezin ditu ahaztu: *"sinesgarritasuna transmititzea eta gauzak argi eta garbi egin eta esatea"*.

Ez du gogoko kalean ezagun izatea, hala ere, komenigarria iruditzen zaio kamara aurrean beti pertsona bera ateratzea, *"Jendeak informatiboak identifikatu eta pertso-*



"Komunikatzaile batek sinesgarritasuna transmititu behar du"

nalizatu egiten baititu; aurpegi asko aldatzeak kalte egiten dio bai etxeari, bai albisteari".

Bikuñaren ustez, *"Komunikabideak inoiz ez dira objetiboak, beti norbaitek zerbaitetarako sortzen ditu. Hala ere, nahiz eta objetibotasuna ezinezkoa izan, hondradua beti izan behar da"*.

Herrietako informazioari buruz, komunikabideetan presentzia gehiago behar dutela uste du eta BERRIGARA ere beharrezkoa dela dio.

51

Eskerrik asko guztioi

Berrigarak 5 urte bete ditu. Zorionak. Zorionak Berrigarari berari, Bergaran euskara hutsez argitaratzen den astekariak bost urte bete dituelako eta eskerrik asko herritar guztiei, erakutsitako interesagatik.

Eskerrak ematerako orduan, ezin ahaztu errebista ostiralero kaleratzeko laguntasuna eman diguñen guztiei eta batez ere orain dela bost urte, lehen alea kaleratzeko, lanean jardun zuten guztiei eta proiektua bultzatu zutenei. Zorionak eta eskerrik asko.

Mila esker herriko kirol, kultur edota beste eratako elkarteei beren laguntzagatik. Esker mila

Berrigarako ohiko kolaboratzaileei eta beren iritzi artikuluekin errebista aberastu duten guztiei. Eskerrik asko Berrigaran anuntziatu diren guztiei, beren laguntzari esker aurrera egin dugulako eta egunetik-egunera aldizkari txukunagoa egiteko oso lagungarri izan zaizkigulako eta eskerrik asko, azkenik, instituzioei euskarazko herri aldizkariengan sinistu dutelako eta hasieratik bultzatu dituztelako. Guztioi mila esker. Urte askotarako Berrigara!!

Bost urte

1990eko abenduaren 14an kaleratu zen Berrigararen lehen alea. Edurne Arenaza eta Jon Andueza aritu ziren orduan lanean. Biek ere bide ezberdinak hartu dituzte baina gogoan dute hasiera hura.

Hasierako urte haiek gogoratu...

Jon Andueza kazetari arrasatearra ETBn lanean ari da gaur egun. Besteak beste, *Hor dago koxka*, eta *Gutxi gorabehera* lehiaketak aurkeztu ditu eta orain *Elkanotarrak* saioan ari da Anne Igartiburrekin batera.

- Jon, nola gogoratzen duzu Berrigararen hasiera?

- Batez ere, lan asko egin genuela gogoratzen dut. Errotalde Jauregiko beheko parte horretan ordu asko sartzen genituen eta eguneroko lana egiteko jende gutxi gineenez, denetik egin behar izan genuen. Baina era berean, hasiera guztiak bezala, polita izan zen.

- Rikardo Arregi Kazetaritza Saria ere irabazi zenuen Txomin Pineda Golkoko gerran izan zen bergararrari



"Lan asko egin genuela gogoratzen dut, baina hasiera guztiak bezala polita izan zen"

entrebista izan behar zena zortzi orriko entrebista bihurtu zen. Ferrete-

nuen. Egia esan ez nuen uste telebistan ezer egiteko aukera nuenik baina...

Jon Andueza

buruzko erreportaia bati esker. Hori da gehien gogoratzen duzun lana?

- Hori da bat, bai. *Proyecto hombre* delakoan ari ziren hainbat pertsonari egindako elkarrizketa eta Gazteluri egindakoa ere gogoratzen ditut. Neri kirola betidanik gustatu zait eta errealzalea naiz. Teorian orri bateko

rian sartu eta gustora aritu ginen berbetan eta harrituta geratu nintzen Gaztelurekin, oso tipo jatorra eta katxondoa da.

- Berrigaratik Arrasate Telebistara salto egin zenuen...

- Berrigarara etorri aurretik Arrasate Press astekarrian aritu nintzen eta beste medio bat probatzeko garaia zela erabaki

Mondrasport kirol saioan hasi nintzen eta ondoren era guztietako programak egin nituen: informatibokak, hauteskundeetako programa bereziak, jaietakoak... denetik. Eta han bi urtez izan ondoren ETBn hasi nintzen.

- ETBn zein programatan aritu zara gustorago?

- *Hor dago koxkan*,

duda barik. Lehiaketa polita zen eta konponente guztiak zeuzkan: kultura zen, berria, interaktiboa -gaur ohituta egon arren... Audientzia aldetik ere ondo joan zen eta horrez gain barre ugari egiten nuen Mikel Laskurain edota Patxo Telleria bezalako jendearekin.

- Orain, zein lan egin nahi zenuke? Eta zein ez zenuke sekula egingo?

- *El día después* Robinsonekin aurkeztea gustatuko litzaidake eta bestela horren tankerako bat euskaraz egitea, futbola modu katxondoan aurkeztea. Bestalde, telediarioak gobernuen trenak direla uste dut eta horrelako egoeretan lan egitea ez nuke nahi.

- Bukatzeko, Jon, zein da Berrigarako atalik onena? Zerbait botatzen duzu faltan?

- Aintzinako istorioak herriko euskaraz kontatuta botatzen ditut faltan. Nere ustez hiruzpalau orri eskeini behar zaizkio horri, ez diogu horri jauten laga behar.

Eta zer den gehien gustatzen zaidana? Ahopekoak. Bestelako ataletan argazkiak nahiko hotzak izaten dira baina ahopekoak gustora irakurri eta ikusten dira, askotan jende ezaguna ikusteko aukera baituzu. Erretatu zaharrekin gertatzen den moduan.

Edurne Arenaza, berriz, ez dator kazetaritza mundutik. Majisteritza ikasketak egin zituen Eskoriatzan eta Jarduneko dinamizatzailea izan zen hiru urtez. Berrigarán, hasieran, maketazio eta publizista lanak bete zituen.

- Nola murgildu zinen kazetaritza munduan?

- Hasieran denetik egin behar izaten zen eta nere kasuan guztiz berria zen mundu hori. Gogorra egin zitzaigun baina poli-

eta Berrigara guztiz errota dagoela herrian. Baina, hala ere, astero-astero publizitatea lortzea zaila izango da oraindik.

- Hiru urte egin ondoren, Donostiako Iru-xulo aldizkarira joan zinen. Alde handia dago hango eta hemengo aldizkarien artean?

- Azpiegitura aldetik Donostiakoa handiagoa da baina lan egiteko moduan antzerakoak dira. Notiziak aukeratzeko beharbada han zailtasun haundiagoak dituzte,

arabera, Berrigara kalitatea zaintzen duten aldizkarien artean egongo litzateke eta hori azala ikustearekin bakarrik igartzen da askotan.

Bestalde, nere ustez herri aldizkarien hasierako *boom* hura pasatu da eta orain horri eusten eta bide berriak jorratzen ahalegindu beharko dira.

- Oraingo Berrigarán, zein atal duzu gogokoen? Zerbait botatzan duzu faltan?

- Ahopekoak, Erretretu zaharra eta, aztertzen

Berrigaran aritu ziren

Jon eta Edurnez gain, beste hainbat lagun aritu dira Berrigarán lanean. Miguel Angel Elkorobereibar, esate baterako, Berrigarako lehen zuzendaria izan zen. Oraindik ere, eta Donostian bizi arren, gure astekariarekin kolaboratzen jarraitzen du. Miguel Angel Donostiako Easo Institutuan ari da lanean.

Beste kazetari ospetsu bat ere izan da gure artean. Gaur egun ETBn lan egin eta Bergaran bizi den Miren Josu Arrazola Zumarragako kazetaria Berrigarán lan egin zuen denboraldi batez.

Publizista modura, berriz, Jose Inazio Irigoien (Irlandan lanean ari dena), Aitor Aranzabal (gaur egun HBko zinegotzia) eta Iñaki Arietaleanizbeaskoa (Alcalá-Mecon preso dagoena) aritu izan dira.

Guztiei eta, nola ez, gure kolaboratzaileei eskerrik asko eta zorionik beroenak bosgarren urteurren hau ospatzen laguntzeagatik.

Edurne Arenaza

ki-poliki aurrera irten zen. Hutsetik hasi ginen, enpresa bat martxan jartzeak suposatzen duen guztiarekin eta hori izan zen zailena. *Reporter* ibili nintzen? Ba, zenbaitetan bai: polita da baina asko lotzen zaitu eta ez daukazu atsedenik. Eta ajetreo askoko lana da, ia ez daukazu erreakzionatze-ko aukerarik aste batetik bestera. Beti gainean egon behar duzu.

- Gainera, publizista moduan, jendeak ezagutzen ez zuen produktu bat saltzeko eragozpenak izango zenituen hasieran...


- Hori nahiko nekeza izan zen bai. Hainbat lekutan ordurako nahiko ezaguna zen Arrasate Press erakusten genuen, jendeak ideia bat hartzeko. Batzuek ondo hartzen zuten baina beste asko beldur ziren zer kaleratuko ote genuen. Baina gaur egun ikusten da arazo hori gainditu dela

nahiko haundiak diren auzo dexente daudelako Donostian. Kontutan izan Bergara bezain haundiak diren auzoak daudela han eta zailena zein gairi lehentasuna ematea erabakitzea izaten da, horrek buruhauste dexente ematen ditu baina aldizkari guztietan emango direla uste dut.

- Eta orain Zubillagako Gertu inprimategian lanean zaitugu. Herri aldizkari dexente inprimatzen dira bertan. Nola ikusten dira hortik?

- Denetik dago. Batzuek gehiago zaintzen dute kalitatea eta igartzen da produktua kaleratzekoan. Hemen entzuten diren komentarioen

den gaiaren arabera, erreportaia irakurtzen ditut batipat. Eta faltan zer botatzen dudan? Bueno, nere ustez denetik tratatzen da baina beharbada erreportaia luzeagoa egin eta kirolari espazioa kenduko nioke. Futbito txapelketari gehiegi eskaintzen zaio.



"Hutsetik hasi ginen eta enpresa bat martxan jartzea ez da lan erraza"

Zer da Berrigaran gehien gustatzen zaizuna?




Jose Maria Fernández
40 urte, langilea

Egia esan atal guztiak gustatzen zaizkit, denak irakurtzen ditut. Ezin dizut esan zeini ematen diodan lehenasuna, herriko gauzak direnez, denak hartzen dira gustora.



Ana Colás
32 urte, langabetua

Erretratu zaharrak, kuriosoak iruditzen zaizkit eta. Erreportaiak ere batzutan ondo egoten dira... Baina orokorrean errebista osoa gustatzen zait.




Aitor Larrañaga
26 urte, ikaslea

Kaleko inkestak eta *Beraiek diñoe* atalean agertzen diren iritziak interesatzen zaizkit batipat. Horiei lehenasuna ematen diet. Baina errebista osoa ondo dago.



Rosalía Merino
59 urte, etxekoandrea

Nire ustez atal guztiak ondo daude, printzipioz informazioa den guztia interesatzen zait. Baina kulturako gaiak beharbada dira gehien jarraitzen ditudanak.



Angel Herrán
71 urte, jubilatua

Egia esan gehienetan egunkaria irakurtzen dut, baina gertuko gaiak eta jende ezaguna iritetzen den bakoitzean Berrigara irakurtzea gustatzen zait.



Manolita Arribas
65 urte, etxekoandrea

Elkarrizketak eta argazkiak batez ere. Eta erretratu zaharrak ere gehienetan oso ondo daude. Gutxi, berriz, orain egiten didazuen moduko inkestak.

JOSE MARI ZEBERIO



HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURU ORDEA

Euskarazko herri prentsaren geroa

Euskarazko herri prentsak etorki-zun oparoa dauka, batez ere beharrezkoa delako.

Euskarazko herri prentsa beharrezkoa da, beste prentsan ez bezala, herri eta eskualdeko informazioa sakonki lan daitekeelako.

Beharrezkoa da kultura, bereziki herrietako kultura, herrietara zabaltzeko tresna ezin hobea delako. Eta beharrezkoa da, baita ere, euskara bera normaltzeko, euskal kazetariak trebatzeko, euskal irakurleak gaitzeko, eta, oro har, euskararen presentzia gizartean areagotzeko.

Baina beharrezkoa izateaz gain, bideragarria ere izan behar du euskarazko herri prentsak.

Eta horretarako, ahalegin handia egin behar du, bestelako diru laguntzak baztertu gabe, bere autofinantziazio tasa igotzeko salmenten eta publizitatearen bitartez, herritarrak eta ekimen pribatua erakarrit, eta kalitate oneko produktua eskainiz.

Honengatik guztiarengatik erabat baikorra naiz herri prentsaren geroaz.

Zer aldatuko zenuke Berrigaran?



MIKEL IRIZAR

ARRASATE KOMUNIKABIDEAK-EKO PRESIDENTE OHIA

"Arrasatepressekoa" eta "Berrigarakoa"

Barrenkaleko Probintzialaren bulego zaharrean nengoen Berrigarakok kolaborazio eske etorri zitzaizkidanean. Ni Arrasaten bizi nintzen eta gainera "Arrasatepressekoa" nintzen hasieratik, herri aldizkarietan ere futboleko bezala nagusiki "batekoak" izaten bait gara. Baina, bestalde, nola "Arrasatepressekoe" oso hurbil sentitu izan dugun beti Berrigara -eta ez bakarrik Jon Anduezak eta Estepan Plazaolak egindako zubiengatik-, nola neu Bergaran ari nintzen lanean, eta nola futboleko ere nahiz nagusiki "batekoak" izan bigarren talde baten faborito izan daitekeen, ba baietz esan nien, "Berrigarakoa" ere izango nintzela aurrerantzean. Total ez zela luzerako izan, ze lanean berehala mugitu ninduten Arrasatera, eta han bizi eta han lan, ezinezkoa egin zitzaidan estreinatu berriko nire Berrigarakortasunari eustea.


Geroztik munduak bueltaka jarraitu du eta Berrigara bosgarren urteurrenera iritsi da eta bertakoak nitaz gogoratu dira ale berezi honetarako. Eta ni pozik, ale batez bederen berriro "Berrigarakoa" izateko aukera ematen didalako.

Azken finean, Euskal Herrian aspaldian ondo egin diren gauzen artean -zerrenda asko eta ezberdinak egongo dira, batzuk luzeak eta besteak motzak- herri aldizkariak eta komunikabideak zerrenda gehienetan eta aurrean daudela ziur nago. Beraz, zorionak!!



Ascensión Díaz de Antoñana
39 urte, langilea

Nahiko konpletoa iruditzen zait Berrigara. Orokorrean ondo dagoela uste dut eta ez zait ezer berririk bururatzen, nik orain dagoen bezala utziko nuke.



Alberto Bolibar
52 urte, langilea

Udaletxean eman daitezkeen akordioei buruzko laburtutako informazioa (bestela ez dugu ezagutzen Udaletxea) eta elkarteei buruzkoa indartuko nituzke.




Olatz Manzanedo
21 urte, langabetua

Ba orain ustekabean harrapatu nauzue eta ez zait ezer bururatzen, baina agian, gazteentzako atal berezia sartuko nuke, hori da interesatzen zaidana.



Sebastian Imaz
33 urte, langilea

Nik ondo ikusten dut. Ez dut funtzionamendua ezagutzen baina ikusten dudanez era guztietako gaiak tratatzen dira eta ondo dago.



Nuria Fernández
23 urte, langilea

Ez dut uste ezer falta denik, era ezberdinetako gaiak tratatzen dira eta ondo dago. Egia esan niretzat ondo dago dagoen moduan, gustora hartzen dut.




Gorka López
27 urte, langilea

Beharbada etxebizitzeari buruzko informazio gehiago botatzen dut faltan, merka-merke saila jarraitzen dut eta interesgarria izango litzateke hori indartzea.

Nola banatzen da Berrigara munduan


BERGARAN GUZTIRA	3.523
ANGIOZAR	114
OSINTXU	92
UBERA	42
SAN BLAS	27
SAN JUAN	25
ELORREGI	23
GIPUZKOAN GUZTIRA	337
ANTZUOLA	206
DONOSTIA	27
ARRASATE	23
EIBAR	8
ELGETA	6
BESTE BATZUK	67
KANPOAN GUZTIRA	78
GASTEIZ	19
BILBO	9
IRUÑEA	8
IPARRALDEA	12
MADRIL	11
BARTZELONA	2
IRLANDA/INGALATERRA	5
ITALIA	1
BESTE BATZUK	11
GUZTIRA	3.938

Orrialde kopurua eta tiradaren bilakaera



Publizitatearen bidez lortutako diru sarrerak

Batazbestekoak, presupuesto guztiarekiko dira



ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABAETA, ESKORIALZA eta OÑATIRA.


SYBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar, 1 ☎ 76 42 41

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

Hainbat ekitaldi 5. urteurrena ospatzeko

Berrigararen bosgarren urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko ditugu datozen egunotarako. Esku artean daukazu ale berezi honekin hasi eta abenduko azken astean antolatuko diren ekitaldiekin ospatuko dugu urteurrena.

Hiru mahainguru, rock kontzertu bat eta Berrigarako kolaboratzaile diren edota izan direnekin egingo dugun afariarekin emango diegu amaiera ekitaldiei. Esan dezagun, bestalde, bosgarren urteurrena dela eta antolatu ditugun Kazetari eta Erretratu Zaharren lehiaketetarako epeak luzatu egin ditugula abenduaren 21era arte.



Xabier Montoiak bakarkako bere lehen diskoa aurkeztuko du.

Azkargorta Txileko selekzionatzaileak, Periko Alonso Eibar taldeko entrenatzaileak, Luis Garmendia Sestao taldeko jokalaria eta Bittor Alkiza Athletic-eko jokalaria. Moderatzaile, Pedro Mari Goikoetxea ETBko kazetari eta aurkezlea izango da. Mahaingurua arratsaldeko 7.30etan izango da

Udaletxe Pleno Aretoan edo Zabalotegiko antzokian, oraindik zehazteke baitago tokia.

Informazio lokala komunikabide haundietan

Gai horri buruz hitz egiteko beste mahainguru bat antolatu dugu abenduaren 27rako. Bertan, herrietako informazioari komunikabide haundietan ematen zaion tratamenduaren inguruan mintzatuko dira hainbat

aditu. Hauek dira gonbidatu ditugunak: Alberto Gorritiberea, Loiola Irratiko Goiziru magazineko arduraduna, Julian Beloki, Euskadi Irratiko zuzendaria, Elixabete Garmendia, Euskal Telebista-ko Bertatik bertara saio-ko koordinatzailea, Martin Garitano Egin egunkari-ko erredaktore burua eta Martxelo Otamendi Euskaldunon Egungariko zuzendaria. Moderatzaile lanak Miguel Angel Elkoroberezibar Berrigarako zuzendari ohiak egingo ditu.

Hau ere arratsaldeko 7.30etan izango da Udaletxe Pleno aretoan seguruen. Aurretik, 7etan, Kazetaritza eta Erretratu Zaharren lehiaketako sari banaketa egingo da.

Euskal musika

Euskal musikaren inguruko beste mahainguru bat izango da abenduaren 28an arratsaldeko 7.30etan Zabalotegiko aretoan. Joseina Etxeberria Euskadi Gazteko esatariak moderatuz, Mikel Markez, Maixa eta Itziarreko Itziar, Xabier Montoia, EH Sukarrako Norton eta Eskixu taldeko Alex izango dira jarduneko. Bestalde, ostegunean baita ere, Xabier Montoiak eta Deabruak teilatuetan taldeak kontzertua emango dute Gartzela Zaharrean gaueko 10etan.

Futbola mintzagai

Abenduaren 26an, futbol profesionalak azken urteotan izan duen aldaketari buruz jardungo dute Agustin Aranzabal Realeko jokalaria, Xabier


Besteak-beste futbola, komunikabideak eta musikari buruzko mahainguruak eta rock kontzertua antolatuko dira

Zure oinetakoak urte osorako doan!!

Oñati eta Bergarako **ALDASORO ZAPATADENDAK**, Gabon zoriontsuak opa dizkie bere bezeroei. **Sasoi bakoitzerako oinetako pare bat eta hiru poltsa zozketatuko ditu bezeroen artean.**

Gure dendetan erosketak egitera zatozenezan bete txartela zure datuekin, sobre batean sartu eta dendan bertan laga. Aurtengo urritik aurrera gure dendetan erosketak egin badituzu, zozketan parte hartu ahal izango duzu. Bete orri bat zure datuekin eta sobre batean sartuta ekarri dendara. Zorte on!!



<p>Erlojutegia iRUDI Bitxitegia</p>	<p>Allianz  ASEGURUAK</p>	<p> <i>Zubizaneta</i></p>	<p><i>Deco - textil</i> ZANGUITU <i>Alfonbrak</i></p>
<p>ILEAPAINDEGIA Jean Louis David</p>	<p>IBARGARAI aldeko Merkatarien Elkartea BERGARA</p> <hr/> <p>PUERTO DE LA CRUZerako BIDAIA eder bat, bi lagunentzako, zozketatuko dugu gure bezeroen artean. Zozketa 1996ko Urtarrilaren 12an izango da.</p>		<p>ETXEPARE BiLiNTX</p>
<p></p>			<p>URTEBERRI ON</p>
<p>LAGUN ARO RAC</p>			<p>CONGELADOS 7 MARES</p>
<p> Flores Ninika</p>			<p>BOLiNTXO KiROLAK</p>
<p>BOLiNTXO OKINTEGIA</p>	<p>MULTIOPTICAS J.LARRAÑAGA</p>	<p><i>winterthur</i> ASEGURUAK</p>	<p><i>Prontaprint!</i> INPRIMATEGIA</p>
<p> <i>Uncelay</i> HARATEGIA</p>			<p>URRATS TABERNA</p>





Asterix eta Cesarren ustekabea

Abenduak 16,
zapatua

11.00etan

Kultur Etxean

Sarrera: 50 pzta.

Bideo pelikulak, Monterongo Kultur Etxeak utzitakoak dira

**Gazteendako
Bideo emanaldiak**



Elikadura

Gabonetako menuak eta erosketak

- Gabonak hurbiltzen direla eta, zeintzuk dira fetxa berezi-tarako menurik aproposenak?

- Bueno, tradizioari eusten badiogu, aza, makailaua, bisigua, angulak edota kapoia aipatu behar dira derrigorrez. Gabon gauean aipatutakoe-kin, dudarik ez, menu oso gozoa osatu dezakegu: aza, urdaiazpiko tortila, makailaua, bisigua, kapoia eta postrea esate-rako. Postrerako intxaur-saltsa eta turroiak aukera ditzakegu. Afaltzeko ja-nari asko izaten da eta o-nena sobratzen dena hu-rrengo egunean, Natibita-te egunean, jatea da.

Bestalde, azken urte-tan nobedadeak izan dira hainbat etxetan eta horre-la pateak, ehiza, oilago-rrak, eperrak edota in-dioilarrak gertatzen dira gaur egun. Tradizioak agintzen du oraindik, bai-na azken momentuan gerta daitezkeen platerak eta lan gutxi ematen du-tenak ere gero eta indar gehiago hartzen ari dira.

- **Prezioei dagokie-**

**nez, aipatutako pro-
duktuek %eko zenbate-
ko igoera izaten dute
orain?**

- Igoera nabaria izaten da, bai. Produktu fresko-ek (legatza eta bisigua esaterako) doblea balio dezakete, marisko fres-koa ere batuz beste %30ean igo daiteke eta konjelatuak ere pixkat igotzen dira. Baina konje-



KOLDO LASA
(Sukaldaria)


latuen kasuan, eta konje-ladorean tokia izanez gero, hilabeteko aurrera-penaz eros daitezke. Konjelatuak ez direnetan, berriz, jeneroaren arabera aztertu behar baina nor-malean, gehien jota, lau-pabost egun lehenago eros daitezke. Komeniga-

ria izaten da honelako-
etan enkarguak denboraz egitea.

- **Gabonen ostean Gabonetan hartutako kiloak kendu nahi izaten ditugu. Horretarako zein metodo gomendatzen duzu?**

- Jatorduetatik kanpo edo jatorduen aurretik fruta jatea eta horrez gain, fibrazko barazkiak oso gomendagarriak dira (gardaberak, kardoak, zerbak... etab). Danetik jan baina ez kantitate ge-hiegi, hori da onena. Grande Cobian nutriolo-go ospetsuak esaten zuen moduan, "danetik jan apur bat, baina asko ezer ez".

"Tradizioak agintzen du oraindik baina lan gutxi eman duten platerak gero eta gehiago prestatzen dira"



Gabonetan plater gozoak jateko aukera izaten dugu. Hala ere, azken momentuan gerta daitezkeen platerak gero eta indar gehiago hartzen ari dira.

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

iRUDI

**Erlojudenda
Bitxitegia**

Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

Aisialdian, zertan gastatzen duzu diru gehien?




Mari Carmen Altuna
61 urte, etxekoandrea

Biajetan gastatzea gustatuko litzaidake baina ezin... Ez daukat bizio partikularrik: bazkariren bat eta horrelakoak baina ezer espezialik ez.




Floren Yarza
69 urte, jubilatua

Ez dakit: automobila zaintzen, mutikoei pagia ematen edo noizean behin txikito pare bat hartzen (gero eta gutxiago). Urtean baje bat ere egiten dut.



Juan Luis Etxaniz
23 urte, ikaslea

Kalera irtetzean, ba tabernetan, zinean eta horrelakoetan. Ahal dudanean ere bidaiatzea gustatzen zait. Musikan ere bai.. Ohizko gauzetan.



Juan Carlos Errandonea
38 urte, langilea

Bidaietan, liburuetan, pelikuletan... baina batez ere bidaietan joaten zait dirua. Informatikako gauzetan ere dirua gastatzen dut.



Mari Angeles Padilla
31 urte, langilea

Ufff! Bidaietan eta liburuetan esango nuke. Momentuz ez daukat beste afiziorik.



Trini Olabarria
48 urte, langilea

Denbora librean mendira joan edo etxean leitzen geratzen naiz... Bestela ez dut uste aparteko gasturik daukadanik.

AGOITZ
Tapizdenda
San Lorenzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23


EDEL
TAPIZDENDA
Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82
KIRIBILTZO
ILEAPAINDEGIA

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltxak,
edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta, 14 BERGARA

Irizar, 2
☎ 76 14 95
JAUJA KIROLAK



Gabonetako oparia

Garai honetan makina bat opari erosteko ohitura dugu. Sarritan pitxi hauek ez dute ezertarako balio izaten, berehala alboratzen ditugularik. Nik, eta adibide gisa, baliogarria izan daitekeen liburu berria aholkatzen dizuet. Datozen egun hauetan norbaitekin konpromizuren bat izanik (eta zergatik ez norberak, bere burua oparitzea) eta ondo gelditu nahi baduzu "Etxe barrurako landareak" liburu berria, Jakoba Errekondok idatzia, eros ezazu.

Beti izaten da loraren bat etxe guztietan eta kasu denean, gutxi edo asko, zaintzen ahalegintzen gara. Ahalegin hauek, berriz, askotan ez ditugu ondo burutzen. Itxu itxuan ibili gabe, normalki hola aritzen baikara, orain jakin dezakegu zenbait zehaztasun: zenbat argi komeni den, nola ureztatu, beraien ugalketa, ongariak, nolako temperatura komeni zaien, landara bakoitzaren jatorria... eta beste hainbat datu interesgarri.

Aipaturiko zehaztasun guztiak banakako fitxetan aurkezten dira. Irakurketa errezteko lora bakoitzaren argazkia azaltzen zaigu, testoa era sinplean aurkeztea ere lagungarri suertatzen delarik.

Gustoko opari baten bila baldin bazabiltzate, badakizue. Pena merezi du eta ez da oso garestia.

Amaia ZABALETA



Borreroak

Intsumisioaren mugimendua egitura militarrek agindutakoa ez betetzeko jokaerarekin hasi zenetik, inoiz ikusi gabekoa genuen gizarte zibila bera, babesa eman ohi diona, Gobernuaren gogoia betez bere buruaren borrero bihurtzen zela. Jakin badakigu oraindik ez dela bihurtu baina Administrazioak horretan sar daitezke. Hori ikusita, galdera hau xe planteatzen zaigu: nola definitzen du antimilitarismoa gure herriko administrazioak? Eusko Legebiltzarrak onartutako proposamen batekin bat etorritz, Bergarako Udalak Plenoan hartutako erabaki batzuren bitartez, nolabaiteko laguntza adierazi dio intsumisioari, gutxienez, jokaera hori hartu duten gazteen penalizazioaren kontra agertuz.

Arrezkero egindako beste Pleno baten, berriz udal hau gobernatzen duten hiru taldeetako partaideak, badirudi, prest daudela intsumisioak zigortzeko agente bihurtzeko, maiatzean onartzekoa den kode penal berria onartzen denetik. Gogoratu kode penal honek bi urtetik sei urtera luza daitezkeen zigorrez gain, kargu publikoetarako inhabilitazioa eta dirulaguntza, beka eta edonolako laguntza publikoak jasotzeko ezintasuna jasotzen duela.

Badirudi intsumisioak, heriotz zibila ematen zaienean, lurperatu beharreko "arazo" bihurtu direla. Halere, benetako arazoa ejerzitoa da oraindik ere, gizarte honen borondatearen kontra soldadutza egitera behartzen baititu gazteak. Eta arazo are eta larriagoa dira administrazioak, gure Udalak bezala, zigortuak izan daitezkeenekin nolabaiteko elkartasuna adierazten baitute, dirudienez, zigorra ezartzeko prest egonik.

Jesus Mari KALBOETXEAGA

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7
behea.
☎ 76 50 39

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta
afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

Taberna Kafetegia EHIZTARIAK LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

LARRAÑAGA eta ZUBIA Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

■ Lurralde Santuan

Santa Marinako katekistek antolatuta, 50 laguneko taldeak Lurralde Santura bisita egin zuen orain pare bat aste. Primeran pasa zuten elkarrekin eta, besteak beste, **Jerusalem, Belen, Tiberiadese**ko lakua edota **Nazareth** ikusteko aukera izan zuten. Hori gutxi baltz, eta eguraldiak lagunduta, **Itsaso Hilean** bainatze-ko aukera izan zuten eta jakin izan dugunez be-

rrindartuta atera ziren uretatik, osasunarentzat oso onak omen dira-eta ur haiek. Sustotxo bat ere jasan zuten egun haietan lurrikara bat izan baitzen Israelen. Kontua da oso gustora ibili direla eta beste irteera bat egiteko gogoz bueltatu direla...

Argazkian, Bergaratik joandako lagun taldea **Monte Taboren** agertzen da. Eskuinean **Patxi Irizar** frantziskotarra, turistek gida lanak bete zituen apaiza ikus dezakezue.



■ Omenaldi afaria

Santa Zezilia eguna aporbetxatuz, Orfeoiko kideek omenaldi afaria eskeini zioten 38 urtez

Orfeoiko pratidea izan zen **Gerardo**

Mondragon bergararrari. Orfeoiko lagunak

Antxoni jatetxean bildu ziren afaltzeko.

Postretan, kantu berezi bat abestu zioten

Gerardo Mondragoni eta, era berean, pergamino bat entregatu zioten opari modura.

Guztiek primeran pasatu zuten eta Gerardok bere lagunak izandako detailea eskertu zuen.

Orfeoiak jarraitzaile leial bat izango du hemendik aurrera...



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Zumelaga

JATETXEA


EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...

etorri eta galdetu!!

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



■ **Azkatsu Gainekoaren aurpegi berria**

Micasa aldizkariaren abenduko zenbakian, **Carmela Gutiérrez-Ravé** bergararraren eskutik, **Azkatsu Gainekoa** baserria mirestu ahal izan dugu. Zortzi orrialdetako erreportaiaren bertan egindako berrizte lanak eta dekorazioari buruzko xehetasun guztiak ematen zaizkigu. Sofia Aranak eta Iñaki Oñate

argazkilariak egindako erreportaiak "Quedarse de piedra" izenburua dauka eta benetan gu ere harrিতuta geratu gara baserriko txokoak ikustean. Gustu haundiz egindako lana, dudarik ez dago.



Zertan dihardute ba?



Iratxu Lizarralde eta Xabier Egidazu

bergarar dantzariak abenduaren 3an Hernanin jokaturako 14 urtez azpikoentzako dantza solteko txapelketa irabazi zuten. Bergararrak bikain aritu ziren. Horrela, bigarren postuan sailkatu zen, Janire Urbietara bergararrak eta Xabier Azurmendik osatutako bikotea. Guztira 15 bikotek hartu zuten parte Hernaniko txapelketan eta Moises Aspiazua eskolako dantzariak garaipena eskuratu zuten. Aurten, besteak beste, Gipuzkoa eta Euskal Herriko txapelkunak izan dira eta Euskadiko txapelketan, berriz, bigarren postua lortu zuten Iratxu eta Xabierrek.

LARREA

TABERNA

**Kalebarren, 17
ANTZUOLA**



ETXE BERRIA


ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Jose Angel Mikeo

35 urteko angiozartarra Mariaren Lagundian teknologia eta zientzietako irakasle da. JARDUNeko lehenengo presidente izan zen, BERRIGARAKO erredakzioko kontseilukide, Angiozako auzo alkate eta une honetan FISK gobernuz kanpoko erakundean dabil.

- FISken orain zertan ari zarete?
- Nikaraguan zabaldu zen zentrurako antiojoak biltzen.
- Aste hau zer da zuretzat?
- Duela bost urteko stressaren 5. urteurrena.
- Berrigara zer da herriarentzat?
- Herritar zentzua sortzen duen herriko komunikabidea.
- Eta bergararentzat?
- Denek norberarena sentitzen duten zerbait.
- Berrigarak merezi al du saririk?
- Bai, ahalegindu delako komunikazio orekatua ematen.
- Zein opari egingo zenioke?
- Kolorea orri guztietan eta jendea erraz sartzeko lokal berria.
- Ze opa diozu?
- Urte askotarako!
- Asko aldatu al da Berrigara?



"Berrigara asko aldatu da sortu zenetik lehen artesanalagoa zen, orain komunikabide baten funtzionamendu normala du. Orri guztietan kolorea eta jendea erraz sartzeko lokal berria erregalatuko nizkioke. Urte askotarako!"

- Bai, itxuran, egiteko eran, langileak... Lehen artesanalagoa zen, orain komunikabide baten funtzionamendu normalagoa du.
- **Berrigarak duen onena?**
- Gaurkotasuna, freskotasuna eta bakarrik Bergarara ez mugatzea.
- **Kritikak ere behar ditugu.**
- Azkarregi irakurtzen da. Tarteka gai sakonagoak sartuko nituzke.
- **Zerbait irakurtzeke uzten duzu?**
- Dena da irakurgarria, nahiz eta zenbaiten iritziekin ados ez etorri.
- **Zein berri irakurtzea gustatuko litzaizuke?**
- Abiadura handiko trenak ez dela egingo.
- **Nor elkarrizketatuko zenuke?**
- Jose Luis Elkoro, datorren urtean ikurriñaren legalizazioaren urteurrena dela eta.
- **Kazetari izarren bat kontratatzekotan, zein?**
- Maddalen Iriarte, alaia delako.
- **Zein kazetari izango zinateke?**
- Bai, jende asko ezagutzen da eta askatasun handiko lana dirudi.
- **Herriko alkate izango zinateke?**
- Partiduen arteko desadostasunak gaindituko balira bai.
- **Durangoko azokan izan zara?**
- Bai, Vikingoak Euskal Herrian, Chomskyren liburu bat eta Pirinioei buruzko liburu bat erosi ditut.
- **Sekula gurpilik zulatu al dizute?**
- Ez, ikasleekin ondo konpontzen naiz.



LAGUN ARO
ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxe: 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ETXEBIZITZA

Sukaldeko altzariak dituen **pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 46 18.

Aranerrek **pisua** salgai. ☎ 76 00 39 / 79 27 68.

Pisua salgai San Antonion. Bi ganbara. ☎ 76 46 22.

Garaje bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 30 32.

Pisu amueblatua saltzen da Zubietan. ☎ 76 62 44.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea dut alokatzeko Zurraideron. ☎ 76 37 69.

Taberna salgai. Erreztasun asko. ☎ 76 46 90.

Lokal bat saldu edo alokatzen da Ozaetan. ☎ 76 47 74.

Duplex pisua salgai Aranerrek. ☎ 76 06 63.

Pisu amueblatua alokatzen da Bolun. ☎ 76 39 91.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 18n. ☎ 76 31 57.

Garaje bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 18 52.

Etxea alokatzen da San Antonion. ☎ 76 21 39.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

DENETARIK

Umeen kotxe-silla bat erosiko nuke. ☎ 76 46 54.

Zibro-kamin estufa bat (RCA-86 B modelo) salgai. ☎ 76 21 90.

Eski denboraldian Jacan pisua osatzeko jendea behar da. ☎ 76 14 59 (Iulen).

Collie arrazako txakurkumak salgai. ☎ 76 64 83.

Mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

Mendiko bizikleta bat eta Flanders aluminiozko koardoa salgai. ☎ 76 47 94.

Peugeot Scooter motorra egoera onean salgai. 65 cm3. Prezio interesgarria. ☎ 76 46 18.

Renault 4 F6 kotxea salgai. ☎ 76 22 11.

Sukalde berri berria saltzen dut. Prezio interesgarria. ☎ 76 21 55 (eguerdian).

Kerosenozko estufa salgai. ☎ 76 58 28.

Estufa japoniar bat salgai. 30.000 pezeta. ☎ 76 55 63.

Tosai kerosenozko estufa salgai. ☎ 76 07 61.

Volkswagen Passat diesela edo antzeko kotxea erosiko nuke. ☎ 77 09 40.

Donostian (Amaran) pisua osatzeko neska bat behar da. ☎ 47 38 85 (deitu 8etatik 10etara).

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Matematika, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

Matematika eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72.

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Gutxitu psikikoen hezitzaile batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 52 08.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

Esperientziadun neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

Ingeles Filolojia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Cambridgeko titulu duen publizitate lizentziatuak ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 06 56 (Irene).

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 48 (Paki).

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.


OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Matematika, zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78

**ileapaindegia**

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

GALLASTEGI

Jostundegia

mahoizko lanerako jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEZIBAR



Natividad Agirre

Natividad Agirrek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen balkoi ederra Bergarako zein kaletan dagoen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Bidekurutzeta** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Natividad Agirreri** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da Arruriaga kalean dagoen XVII. mendeko jauregi honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pza.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	19	7	28	13
2. KABIA	16	8	21	16
3. BERGATRANS	15	8	24	15
4. OGIZUN	14	7	27	21
5. MADURA INDUSTRIAS GOL	13	7	23	12
6. MONGATXURRA	12	7	27	13
7. BAR CANALEJAS	12	7	17	9
8. ORTZI	10	7	16	15
9. ARLOTEAK	7	7	13	17
10. OZAETA	6	8	19	19
11. BILDURBAREK OPEL/LAM	3	7	13	17
12. UFALA	1	8	14	36

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	22	8	64	22
2. HARTU ZAMAK	17	8	33	20
3. PAGOMENDI	16	8	41	25
4. A ZE FLAXA	16	8	24	25
5. UVE BIKOITZA	12	8	29	36
6. KAYAK OS JARDINEIROS	11	8	36	29
7. NAIKARI HOOLIGANS	10	8	33	35
8. ETXAGI	10	8	38	35
9. AUTOBEREZI	9	8	33	35
10. HALTZARI	6	8	24	43
11. ERI	4	8	22	35
12. INDARGORRI	3	8	15	21

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. KIROLZALEAK	19	9	39	21
2. SOROPOTROAK	18	8	41	30
3. NEKROFILIKOS	15	8	34	28
4. MOSKIS	13	8	24	32
5. LA JUVE	12	8	27	28
6. EZINLEIKE	11	7	34	18
7. CONSTR. BERGARA	11	8	28	24
8. AMOZKIBAR	10	7	14	11
9. EH BITERRAK	10	8	15	38
10. SHAKTALE	9	8	17	22
11. ARI ARI	6	7	39	41
12. IGANDEKOAK	3	7	18	25

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	22	8	38	14
2. PJS	16	8	39	13
3. GUADALEST	14	7	24	18
4. PATA NEGRA	13	8	25	34
5. TXIPIRON	12	7	29	16
6. PATXARAN TEAM	11	7	26	15
7. OSINTXU	10	7	25	26
8. MATXAKATEGI	8	7	27	29
9. LABEGARAIETA	7	8	19	28
10. ALDOKA MALDOKA	4	8	26	31
11. XURRUPAK	0	7	13	49

TALDEAK



Guadalest taldea Carlos Rodríguez, Juan Mari Vicente, Rafa Hers, José Javier Agirre, Bittor Agirrebarrena, José Manuel Hers, Agustín Sánchez, Ramón Conde, Ion Irizar, Diego Sánchez eta Francisco Rodríguezek osatzen dute. Joan zen urtean lehen mailan aritu ziren eta jokalaririk faltagatik 4. mailaraino jeitsi dira. Aurten jokalaririk berriak dituzte eta mailaz igotzeko helburua dute. Izenari dagokionez, Guadalest Alicanten dagoen herri baten izena da eta taldeko jokalaririk bat oporretan bertan izan ondoren, horrenbeste gustatu zitzaion izena non jartzea erabaki zuten.

PARTIDUAK

LARUNBATA BARRUAN

18:00: Bar Canalejas-Ogizun • Ufala
19:00: Ufala-Arloteak • Bar Canalejas
20:00: Errotagain-Mongatxurra • Arloteak

LARUNBATA KANPOAN

16:00: Nekrofilikos-Amozkibar • Constr. Bergara
17:00: Shaktale-Constr. Bergara • Nekrofilikos

IGANDEA BARRUAN

09:00: Eri-Indargorri • Jauja OH Zerezos
10:00: Uve Bikoitza-Jauja OH Zerezos • Eri
11:00: Kayak OJ-Pagomendi • Uve Bikoitza
16:00: Haltzari-A Ze Flaxa • Hartu Zamak
17:00: Hartu Zamak-Naikari H. • A Ze Flaxa
18:00: Ozaeta-Madura Ind. Gol • Naikari H.
19:00: Angiozar-Bergatrans • Ozaeta
20:00: Bildurbarek Opel/Lam-Kabia • Bergatrans

IGANDEA KANPOAN

09:00: Txipiron-Guadalest • Ari Ari
10:00: Ari Ari-Moskis • Guadalest
11:00: Ezinleike-Kirolzaleak • Moskis
16:00: La Juve-Soropotroak • Matxakategi
17:00: Osintxu-Matxakategi • La Juve

ORDAINTZEKO EPEA LARUNBATEARA ARTE

Antolaketa Batzordeak jakinarazi digu, txapelketan diharduen talde bakoitzak 8.000 pzta. ordaindu beharko dituela abenduaren 16a baino lehen.

EMAITZAK

1. MAILA

ARLOTEAK-BERGATRANS	3-2
MADURA INDUSTRIAS GOL-KABIA	2-4
OGIZUN-UFALA	4-4
OZAETA-BERGATRANS	6-2
UFALA-KABIA	4-5

2. MAILA

HALTZARI-ERI	3-2
AUTOBEREZI-NAIKARI HOOLIGANS	0-4
KAYAK OS JARDINEIROS-A ZE FLAXA	3-3
ETXAGI-INDARGORRI	3-2
PAGOMENDI-JAUJA OH ZEREZOS	2-3
HALTZARI-HARTU ZAMAK	4-8
ETXAGI-PAGOMENDI	5-7
UVE BIKOITZA-NAIKARI HOOLIGANS	5-3
AUTOBEREZI-JAUJA OH ZEREZOS	6-11
KAYAK OS JARDINEIROS-INDARGORRI	3-3
ERI-A ZE FLAXA	2-3

3. MAILA

EZINLEIKE-MOSKIS	8-0
KIROLZALEAK-CONSTR. BERGARA	7-2
LA JUVE-CONSTR. BERGARA	3-1
MOSKIS-IGANDEKOAK	2-1
KIROLZALEAK-SOROPOTROAK	2-4
SHAKTALE-IGANDEKOAK	0-2
NEKROFILIKOS-MOSKIS	5-6
EH BITERRAK-ARI ARI	4-3

4. MAILA

LABEGARAIETA-XURRUPAK	5-0
OSINTXU-FAC	2-2
GUADALEST-PATXARAN TEAM	2-2
TXIPIRON-PJS	2-2
ALDOKA MALDOKA-TXIPIRON	2-2
PATA NEGRA-PJS	1-12
ALDOKA MALDOKA-MATXAKATEGI	1-6
LABEGARAIETA-FAC	2-5

TALDEAK



Pata Negra taldea Javi Gómez, Miguel Angel Mateos, Paco Cambronell, Aitor Ibabe, José Javier Mateos, Juantxo Caballero, Jesús García, Rafael Prieto, Iosu Olasolo, Mikel Vicente, Richard Pose, Alberto Vicente, Iñigo Martín eta Rubik osatzen dute. 4 urte daramatzate elkarrekin jokatzen eta beti azkenengo mailan izan direla aitortu digute. Halere, kalitate handia dutela diote. "Izena, Pata Negra, urdaiazpikotik hartu dugu. Izan ere guk ditugun atzazkalak kalitate handikoak dira eta". Baina badirudi arbitroek ez dutela kalitate hori behar bezala baloratzen "oso txarrak dira eta".

TXINPARTAK

Gabonetako I. Pala Txapelketa

Abenduaren 23tik urtarrilaren 5era arte Gabonetako I. Pala Txapelketa jokatu da Zabalotegiko pilotalekuan, 15 urtetik gorakoendako. Izen-ematea 20a baino lehen egin behar da Udal Kirol Zerbitzuko bulegoetan. Prezioa, 500 pzta. bazkideentzat eta 1.000 bazkide ez direnentzat.

Emakumeen futbito txapelketa

Lagunak Areto Futboleko Elkartek antolatuko duen Emakumezkoentzako lehenengo futbito txapelketarako izena emateko epea abenduaren 26ra arte luzatu da. Egun horretan bilera bat egingo da parte hartuko duten talde guztiakin Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan.

Frontoien alokairua

Osintxu eta Zabalotegiko frontoietan datorren urterako orduak hartzeko izena emateko epea zabalik dago. Osintxuko libutegian edota Udal Kirol Zerbitzuan eman daiteke izena.

Igerilekuak itxita

Zapatu honetan arratsaldean bainu eremua itxita izango da, benjamin eta alebin mailetakoko igeriketako probak izango direlako.



Joxu Arana eta Roberto Irazabalek urte hasieran ekingo diote.

Joxu Arana eta Roberto Irazabal berriz BKEn

BKEko Preferente mailako taldeak 2 eta 3 irabazi zuen pasa den ihardunaldian Zestuaren kontra eta bolada txarrari amaiera eman zioten. "Aurredebordaldian jokatu genuen moduan aritu ginen eta bi jubenilek, Francok eta Unamunok, debuta egin zuten eta ezin hobeto egin ere" dio Javi Pérezek. Halaber, taldea indartzeko asmoz joan zen urtean taldean jokatu zuen Joxu Arana eta Roberto Irazabal entrenatzen hasi dira lehen taldearekin. Entrenatzailearen asmoa bi jokalariai datorren urtarrilaren 6rako jokatzeko izatea da. Igandean Real Uniónen aurka jokatu dute eta txartelengatik taldetik kanpo egon diren jokalariai ere jokatzeko prest izango dira.



Martín Egaña bere taldea osatzen duten lagunekin Xerez en ateratako argazkian.

Martín Egaña kotxe gidaria Espainiako txapeldun

Martin Egañak duela 15 egun Xerez en jokatu-tako lasterketan AX GTI txapelketa eskuratu zuen, lehen eguneko sailkatze lasterketan irabazi ondoren. Halere hurrengo eguneko lasterketa ezin izan zuen amaitu beste kotxe batek pistatik kanpora bota ondoren. Egaña pozik dago lortutako

emaitzekin eta datorren urterako ia ziurtatuta dago ZX txapelketan arituko dela.

Garaipenarekin Egañak urte askotako lanaren fruituak jaso ditu. Izan ere, 7 urte daramatza zirkuituetan. Hasieran bi urtez Renault Kopan aritu zen eta azkenengo 5 urteak AX GTI Kopan eman

ditu. Egañaz gain, Pablo Irizarrek ere denboraldi ona egin du 4. postuan geratu den arren eta Juan Antonio Egaña, berriz, AX GTI Kopan 9. postuan sailkatu da. Argazkian ezkerretik eskumara Pablo Irizar, José Luis Egaña (mekanikoa), Sebastián Izeta (mekanikoa) eta Martin eta José Antonio Egaña.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Real Unión

Preferente maila.

Igandea, 15.30. Agorosin.

◆ Bergara-Hondarribia

Ohorezko mailako jubenilak.

Larunbata, 15.30. Ipintza.

◆ Bergara-Soraluze

2. mailako jubenilak.

Igandea, 11.00. Ipintza.

◆ Bergara-Urretxu

Emakumezkoak.

Larunbata, 17.15. Ipintza.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Elgoibar

Kadete mutilak.

Larunbata, 16.30.

Labegarieta kiroldegia.

◆ Bergara-Ordizia

Senior mutilak

(2. territoriala).

Igandea, 12.15.

Labegarieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ Bergara-Beasain

Junior mutilak.

Larunbata, 16.00.

Mariaren Lagundia.

PELOTA

◆ Bergara-Anoeta

Junior liga, banaka.

Igandea, 12.30.

Udal Pelotalekua.

Aurretik, 11.30etan, etxe

babeslearen aurkezpena

egingo da eta ondoren,

kadete mailako binakako

adiskidantzazko partidu bat

jokatuko da.

Maite Agirrebeña

Elurretan maldan beheara

Negua heltzear dago eta neguko kirolak gustoko dituztenak Pirinioetako pistetara joango dira eskiatzera. Maite Agirrebeña bergararra (12 urte), Espainiako Eski Txapelketan hirugarren sailkatu da azken denboraldian benjamin mailan. Berarekin hitz egin dugu hastear dagoen denboraldiari buruz.

- Ze probatan aritzen zara?

- Eslalon, gigante eta supergigantean. Eslalona motzena da eta besteek distantzia luzeagoa dute. Hiru probak egin behar dituzu eta gero denborak batu egiten dira. Puntuazio guztia batuta egiten da sailkapen orokorra.

- Zein proba duzu gustokoen?

- Supergigantea abiadura handiena hartzen baita.

- Noiz hasten zara entrenamenduetan?

- Neguan entrenatzen dugu, aurten abenduaren 26an hasiko gara eta apirilera arte arituko gara. Candanchun ibiltzen gara eta asteburuetan norma-lean.

- Zaila da eskiatzea?

- Hasieran bai, baina gero oso polita da. Poli-ki-poliki hasita eta kuñak ondo egiten ikasi ondoren kirol polita da.

- Euskadiko selekzioaren barruan zaude, ez?

- Bai, selekzioaren barruan bi entrenatzaile ditugu eta asteburuetan elkartzen gara. Entrena-

menduetan pistetan aritzen gara gehienbat eta eguraldi txarra egiten badi korrika edo beste zer-bait egiten dugu.

- Ze helburu dituzu datorren urterako?

- Euskadiko selekzioarekin hainbat probatan parte hartuko dugu eta Espainiako Txapelketa izango da berriz probarik garrantzitsuena. Zer egingo dudan? Ez dakit oraindik ez naiz hasi gogor entrenatzen eta.

- Selekzioan ze giro duzue?

- Oso ona, urtean zehar proba ezberdinetan aritzen gara eta oso ondo pasatzen dugu. Gauean parrandatxo bat edo egiten dugu, baina ez oso handia bestela hurrengo egunean...

- Snow-board edo horrelako kirolak egiten duzu?

- Ez zaizkit asko gustatzen, niri eskiatzea gustatzen baitzait. Noizbait fondoko eskia egin izan dugu, baina oso gogorra da eta nahiago dut alpinoa egitea.



laz Espainiako Eski Txapelketan hirugarren postua lortu zuen.

"Aurtengo probarik garrantzitsuena Espainiako Txapelketa izango da"



Lokatzako txirrindulariak (1982)

Lokatzako Txirrindulari Elkartek urteak daramatza herrian txirrindularitzaren alde lan egiten. Gaur egun ere gogor dihardu. Egia da goi mailako txirrindularirik ez dela azkenaldian irten Bergaran, Iñigo Igartua, ziklo-krosesan, izan ezik. Ricardo Iturbek etorkizun oso ona zuen, eta Melcior Maurirekin batera aritu zen Espainiako selekzioan jubencil mailan, Joseba Arietaleanizbeaskoa ere poliki aritu zen afizionatuetara bitartean eta mendiko bizikleten lasterketa ugari irabazi zituen sasoi batean.

Kontuak-kontu, asko dira Lokatza elkartean ibili diren gaztetxoak, argazkikoak esate baterako. 1982. urteko Lokatzako kadete mailako txirrindulariak dira eta gaur egun 29-30 urte izango dituzte. Hara nortzuk diren, ezkerretik hasita:

Zutik: Fernando Etxabarri, Iñigo Jauregi, Txomin Unamuno, Jose Luis Unamuno (Txominen aitak), Emiliano Sánchez, Ricardo Iturbe, Eñrike Elkoroberezibar, Martín Alberdi, Pello Larrañaga, Martín García, Demetrio Iturbe, Julian Salsamendi eta Agustín Barbero.

Makurtuta: Andoni Olabarria, Igor Garitano, Andoni Alberdi, Agustín García, Martín Alberdi, Eduardo Agirre, Fermin, Andrés Iturbe eta José Ramón Etxeberria. Argazkian Julian Portu falta da.

Argazkia: Claudio García

Atsedeen zentrua

LOKARTV

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



GOGORATU!! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK

Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguru aurkituko duzu beti. Hala seguru izan zaitezten. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.



**MAPFRE
MUTUALIDAD**

**Simon Arrieta, 3 BERGARA
☎ 76 28 79 / 76 18 80**




Katabia, 1

**ARTAZI
OIHALAK**

☎ 76 27 17



Maalako Errabala, 13
Tfnoa: 79 92 76
ARRASATE



OKENDO
KIROLAK

